

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ingurumeneko Departamentuak klimaren aldaketari aurre egiteko egurra erabiltzearen inguruko informazioa ematen du Sanferminetako liburuxka batean

Iruñeko jaietako entzierroetan erabiltzen den egurrak 360 tona CO2 aineratzea saihesten du

Viernes, 24 de junio de 2011

Iruñeko San Fermin jaietako entzierroetan eta prozesioetan erabiltzen den egurrak urtebetean 180 autok sortzen duten CO2 kopurua beste aineratzea saihesten du.

Kalkulu horrek laburtzen du [La madera en los Sanfermines](#) izenburudun liburuxkan azaltzen den

informazio nagusia. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak argitaratu du liburuxka egurraren erabilerak klima aldaketaren aurkako borrokan burutzen duen egiteko garrantzitsuen berri emateko. Entzierroetan erabiltzen den egurra (ibilbidea mugatzen duten hesiak) eta San Fermineen prozesioan erakusten diren egurrezko materialak (santuaren XV. mendeko tailu polikromatua eta erraldioen eta buruhandien apaingarriak, besteak beste) 180,52 tona dira guztira. Egurrak atmosferara 361,04 tona CO2 isurtzea saihestuko du.

Liburuxka argitaratzeko asmoa zortzi mila laguni egindako inkesta bateko emaitzetatik sortu zen, izan ere, horien % 68k ukatu egin zuen edo ez zekien egurraren erabilera berotegi gasen emisioari aurre egiteko giltzarria dela. Baina hala da. Egurra baliabide berriztagarria da, birziklagarria, berriz erabil daitekeena eta biodegradagarria. Egurra eraldatzeko prozesuan askoz energia gutxiago kontsumitzen da beste material batzuen eraldatze prozesuan baino; gainera, zuhaitzak mozteak ez dio kalterik eragiten ingurumenari kudeaketa iraunkorrerako irizpideak jarraituz gero. Nafarroan, lurraldearen azaleraren % 64 basoek hartzen dute eta, azken urteetan, % 20 handitu da basoen azalera.

Liburuxkak jaien inguruko informazioa eta hiriaren plana jasotzen ditu, eta doan eskura daiteke turismo bulegoetan eta hotel establezimenduetan.



Iruñeko San Fermin entzierroa